

Europara (aitzakia gisa)!

Galder
Gonzalez

Oraindik ezin dut botorik eskatu, baina beno, ziur badakizuela denek zer bozkatuko dudan maiatzaren 25ean. Egia esan, oso ezezaguna zaigu Europar Batasuna eta horren inguruan mugitzen den guztia, nahiz eta gure eguneroko bizitzan eragin izugarria duen. Ziurrenik Europar Batasuna bera da egoera horren erantzulea, instituzio gero eta konplexuagoak sortuz, baina benetan egiten denaren berri eman gabe.

Hilak 25ean Troikaren aurka eta herrien eskubideen alde bozkatuko dudala esatea ez da gehiegi esatea. Baina ez da hori bozkatzeko izango dudan arrazoi bakarra. Nire botoa ez da bakarrik Bolonia Prozesuaren ondorengo EU 2020 estrategiari ezezkoa emateko izango, edo murrizketei ezezkoa emateko, edo gero eta faxistagoa den Europan ezkerreko alternatiba bat sendotzeko. Euskal Herrian jotzen dena kontuan izanda ere bidaliko dut Josu Bruselara.

Hurrengo hauteskundeek ziklo oso baten hasiera finkatuko dute, EAEn urte eta erdi hauteskunderik gabe igaro ostean eta ia hiru urte Nafarroan. Ostean etorriko dira udal hauteskundeak, Nafarroako foru hauteskundeak, diputazio ezberdinetakoak, eta, azkenik, Espainiako hauteskundeak. Horietan guztietan ezkerreko burujabetzaren esparrua indartzea nahitaezkoa da, eta, horri begira, garrantzi handia du hurrengo hauteskundeetan posizionamendu ona hartzea. Egongo den abstentzioa medio, aukera handiak daude Hego Euskal Herriko lau lurraldetik bitan gehiengo berriak sortzeko. Nafarroan lehen indarra abertzalea izateak aukera handiak irekiko ditu hurrengo urtean. Eta horrek bai, horrek oso-oso urduri jartzen ditu euskal herritarrak Europan nahi ez gaituzten horiek. •



► **KHERAU (EUSKAL HERRIA)** 2010ean lehenagoko musika proiektuetan elkar ezagututako bost lagun elkartu ziren folk proiektu bat osatzeko. «**Munduan ortozik**» izan zen beren estudioko lehen lana. Bertan 11 lan batu zituzten, Euskal Herriko tradiziozko kantutegikoak sei eta taldeak idatzi eta sorturikoak besteak. «**Aukhera**» da beren bigarren lana; hesteetatik idatziko akordeak, ekiaren egunsentiari begirako hausnarrak eta taberna zulo giroko elkarriketa pasarteak biltzen ditu.

◀ **MÀNRRAN (ESKOZIA)** Glasgow hiriko sei lagunek osatzen dute taldea. Eskoziako musikak bizirauteko asmoz, 2010. urtean sortu zen musika tradizionala eta egungoa nahasteko proiektuarekin. Euren abestietan musika gaelikoaren eta ingelesaren arteko nahasketa atzeman daiteke, horretarako soinua, biolina, txirula, baxua eta bateria baliatuz. Gaita eskoziarra eta irlandar gaita ere baliatzen dituzte euren lanetan.



► **XARGENE (OKZITANIA)** 2004. urte amaieran sortutako taldea, bi euskal musikari eta hiru gaskoi batzen ditu. Urte hauetan guztietan Europako hainbat herrialdetan jo izan dute, besteak beste, Flandria, Hungaria, Portugal, Suitza, Italia... Ozeanoaren beste aldeko hainbat herritan ere izan dute euren musika ezagutzeko parada, Mexikon eta Kanadan kasu.

◀ **KORRONTZI (EUSKAL HERRIA)** Korrontzi folk taldea 2004an sortu zuen Agus Barandiaranek Mungian eta handik gutxira taldea gorpuztea lortu zuen. Antzinako doinuetan babestutako Euskal Herriko folk musikari gaurkotasuna ematen saiatu da taldea hasieratik, betiere trikitiaren esparrua oinarri hartuta. Taldearen laugarren diskoan, «**Tradition 2.1**» izenekoak, Euskal Herriko musika tradizionala hainbat herritako musikarien ekarpenarekin uztartu dute.



► **STUKAT DEL BOLET (KATALUNIA)** 2007an Arsegueleko zenbait gaztek folk musika jotzeko asmoz sortutako taldea da. Gitarra, akordeoia, biolina, txirula, kontrabaxua, tronboia eta bateria bezalako instrumentuak baliatzen dituzte. Garrotxa eskualdean kokatuta izanik, inguruetako jaietan eta Bartzelonako hainbat jaialditan jo izan dute. Bielorrusia, Bulgaria edota Eslovakian ere izan dira. 2011n Gironan ospatzen den **Robert Pellicer** musika tradizionalako lehiaketa irabazi zuten.